

Matxalen Ziarsolo:

“Euskarak ere bere lekua behar du kirolean”

Ermuarra jaiotzez baina gaur egun Zaurautzen bizi da. 28 urte ditu eta Donostiako Bera-Bera eskubaloitaldeko jokalaria profesionala da. 10 urte daramatza taldean eta 8, goreneko mailan jokatzen. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko hainbat udalek, Ermukoak barne, ‘Aukeratu Zeurea’ deituriko kanpainan hartu dute parte, kirolean euskara sustatzeko deia eginez.

- Zer moduz?

Ondo nago. Jada zortzigarren denboraldia dut lehen taldean, aurkitu dut nire lekua eta gustura.

- Aurten taldea erabat berritu da...

Bai, iaz batzuk taldea utzi zuten eta aurten taldea berri osatzen gabiltza. Erronka bat da hori ere eta momentuz sailkapenean goi postuetan gaude.

- Orain atsedena duzue urtarilla bitartean...

Europako Txapelketa da jokoa eta beraz ligak atsedena hartu du. Alderdi fisikoa lantzeko eta atsedena pixkat hartzeko baliatuko dugu.

- Garai batean Ermuko neska gehiago ere baziren taldean...

Ixone, Esther, Ainara. Pena handia hartu nuen taldean bakarrik gelditu nintzen. Umetatik elkarrekin

hainbat ordu, hainbat neke eta poztasun uneak pasa ostean, baina bizitzak aurrera darrai!

- Zein egoeratan dago emakumeen eskubaloia?

Azken hamarkadan aurre-rapauso asko eman da. Babesleak gehiago dira, maila ere asko hobetu da, baina oraindik asko dago egiteke.

- ‘Aukeratu zeurea’ kanpainan hartu duzu parte...

Ermuko Udaleko euskara teknikaria den Fernando Aranberrik deitu zidan ea prest nengoen kanpainan parte hartzeko eta baietza eman nion. Beste bizkaitar bat ere bada taldean, Zulai Agirre bermeotarra, eta bion artean egin genuen argazkia.

- Kirolean euskara sustatzea du helburu kanpainak...

Euskarak ere kirolean bere lekua behar duela uste dut. Eskubaloiaz gain, pilotariak, arraunlariak, txirrindulariak, kirol arloko aurpegi ezberdinak azaltzen gara. Kirol bakoitzerako hitzegi teknikoak ere egin dute. Informazioa, www.aukeratuzeurea.biz webgunean agertzen da.

- Zuon taldean euskarak badu lekurik?

Reyes Karrere gure entrenatzailea euskalduna da eta berarekin euskaraz egiten dut. Taldean badira euska-



raz ez dakitenak ere, baina haiek ere ahalegintzen dira ikasten eta jakitun dira euskara ere badela gure egunerokoaren parte.

- Ikastetxez ikastetxe ibilizazarete?

Ez, soilik gure irudia eskaini dugu. Hala ere, Euskararen egunean, Ongaraiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan izan ginen Zulai eta biok eta ikasleekin tarte polit bat pasatzeko aukera izan genuen euskara eta ki-

rola aitzaki hartuta.

- Aurrera begira zein asmo dituzu?

30 urte izan arte goi mailako kirolean segi nahiko nuke. Adin horretara iristean ikusiko da.

- 2011ari zer eskatzen diozu?

Europako lehiaketara itzultzea. Aurten ez dugu jokatu eta 2 urte jarraian Europatik kanpo, gogorra litza-teke.

Asier Ibaibarriaga

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

943172665 **ERMUA**

BAGROS **Zubiaurre 20**

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*